

Fede ona

De Juana Chaosek kartzelan eman ditu azken 20 urteak. Indarrean zegoen legediak eskaintzen zituen onurak tarteko, 18 urteko kartzela zigorra ezarri zioten, egindako krimenengatik. Hala eta guztiz ere, preso dute oraindik behin-behinean, Gara egunkarian argitaratutako bi iritzi artikulurengatik hasitako prozedura noiz erabakiko zain. Espainiako Auzitegi Nazionalaren iritziz, terrorismo mehatxua egin du De Juana Chaosek, eta 12 urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri dio horregatik. Erabaki horren aurka protestatzeko, gose greba egitea erabaki du De Juana Chaosek, horren azken ondorioetaraino.

Zuzenbide estatuan —behin eta berriz aipatzen digute hori, publizitate kanpaina balitz bezala— ez dago heriotza zigorrik edota bizitza guztikorik. Eta eutanasia ere debekatua dago. Fede onez ariko naiz, eta zuzenbide estatua bere legeetan sinesten duela pentsatuko dut; ez duela bizi guztiko zigorra edo heriotza zigorra aplikatzen. Fede onez, berriz ere, De Juana Chaosek argitaratutako artikuluen edukia guztiz esplizitua dela pentsatuko dut, hiltzeko arriskuan dagoen pertsona bat kartzelan edukitzeko beste. Zuzenbide estatuan adierazpen askatasuna dagoela pentsatu nahiko nuke, eta auzi honetan, Egunkaria auzian edo Pepe Rubianes aktorearen auzian —batzuk aipatzearen— erantzuleak auziperatzeko besteko zantzu daudela. Bestela, aleluia jo izango zuket denek, horixe egiten baitute hemendik kanpo adierazpen askatasuna urratzen denean, Marokon, Kuban edo Turkian besteak beste. Zuzenbide estatua guztiontzat berdina dela pentsarazten dit fede onak; presio politikoek ez dutela inolako eraginik, eta botere judiziala independentea dela benetan; Lopez Aguilar Justizia ministroaren adierazpenek ez dutela inolako eraginik izan epaian — «Gobernuak beste hainbat inputazio egingo ditu aske gera ez dadin», esan zuen De Juana Chaosen auziari dagokionez—.

«Hitzak ez, ekintzak», esan zuen norbaitek, eta honako gertakari hauen berri ematen digu David Fernandezek *Crónicas del 6 i altres retallas de la claveguera policial* liburuan: Guardia Zibileko jeneral eta Intxaurrendoko kuarteleko basakerien erantzule izandako Enrique Rodríguez Galindori 75 urteko kartzela zigorra ezarri zioten Lasa eta Zabala hiltzengatik, baina horren laurdena baino ez zuen bete, osasun arazoak argudiatuta. Osasun arazoengatik utzi zuten aske Julen Elgorriaga ere; 80 urteko zigorra bete behar zuen gertakari haiengatik, baina zigorraren %3 bakarrik bete du. Espainia osoari iruzur egin eta gero, etxean dago De la Rosa, depresioa duela argudiatu eta hirugarren gradua ezarri baitiote. Rafael Verak, berriz, 8 hilabete bakarrik egin zituen kartzelan, Segundo Marey bahitzeagatik —GALek hartu zuen hori bere gain— 10 urteko kartzela zigorra ezarri bazioten ere. Batez ere torturaz eta torturaztaileez mintzo da David bere liburuan; eta hainbat disidentzia kriminalizatzeke, informazio erabiltzeko modua; horrekin batera dio Poliziak berak ezartzen dituela politikoki interesatzen zaien haiek kriminalizatzeke behar diren frogak, eta Gobernuak ez duela hitzik ere entzun nahi NBEko torturaren aurkako ikuskari bereziaren edo erakundeen txostenez —AI Amnesty Internazionalak egindakoez besteak beste—. Izan ere, zuzenbide estatuan torturatu egiten dela diote horiek.

Gainera, Egunkaria auzia artxibatzeko eskatu du Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak berak orain; diotenez, ez dago frogarik. 2004an, berriz, zigortu egin zuen Estrasburgoko Auzitegiak Espainia, 17 independentista katalanek 12 urte lehenago salatutako torturak «ez ikertzeagatik»: bat ez zetozen ahotsak isildu egin behar ziren Olinpiar Jokoetan. Eta 2005eko azaroan, Mamadou Kane senegaldarra jipoitu, iraindu eta laidotzatzeagatik desgaitu eta zigortutako Vigoko lau tokiko polizia salbuetsi zituen Zapaterok —2 eta 4 urteko kartzela zigorra zuten. Aznarrek ere beste horrenbeste egin zuen 2000. urtean: torturatzeagatik zigortutako 14 polizia salbuetsi zituen; lehendik ere zigorra jasotakoa zen horietako bat. Eta...

Tira, saltsa ikaragarria dut buruan. Eremu ilun ugari ditu zuzenbide estatu honek, eta zalantzan jartzen naute. Hipokrisia usaina dario honi guztiari. Eta hipokrisia honekin guztiarekin amaitu egiten da fede ona.

Oleguer Presas
FC Bartzelonako futbolaria